

# Arrantzale familien eboluzioa Bermeon. Andararen ikuspuntutik aztertutiko bi kasu 1965-2010

Dr. Miren Gabantxo

## 1. Hitzaurrea

Bermeo aztertzean, Joseba Zulaikarekin bat egin nahi dut, ikasketa kulturalak eta antropologia berria, berak ulertzen dituen moduan hartu gura dudalako nire herria begiratzeko. *Basque Cultural Studies* (Douglass, 1999) horietan, pertsonak egunerokotasunean islatzen duten diskurtso simbolikoa aztertzen du berak. Antropologoek begiratu egiten dute bertako batzuk nola bizi diren eta zer uste duten euren munduari buruz. Hau da, antropologoak besteak begira egoten dira. Kasu honetan, "besteak" geu gara, "ni, neu", nire aurreko belaunaldia aztertuko baitut.

Julio Caro Barojaren berba batzuk gogoratu nahi ditut. Behin batean, 1968-1973 urte bitarteko egun batean Donostiako San Telmo Museoa egon zen Joxe Miel de Barandiaranekin, antropologiari buruz eta historiari buruz hitz egiten, eta zera esan zuen: "(...) antropologian hauxe egin behar da, gogoan duzunaz eta ahaztu duzunaz konparaketa egin eta orduan saiatu dagoen diferentzia azaltzen"(Greenwood, del Valle, & Pujadas, 1996).

Nik antropologia ariketa hori egiteko nire belaunaldiaren aurreko bi emakumerekin hitz egingo dut, gogoratzen dutena eta ahaztuta dutena konparatzeko. Dirurik ez izatetik, dirua gastatzeko moduan izatera pasa ziren. Tarte horretan erabakiak hartu zituzten, etxea erosi, itsasuntzia egin, alabentzako ikasketak ordaindu, etabar. Erabaki horiek garrantzitsuak izan ziren euren bizimoduetan. Eta andra horiek, Bermeoren modernizatzerantzko bidean eraginkorrak izan ziren.

Ikerketa hau egiteko Bermeoko biztanle batzuen ahozko informazioa batu dut, eta bereziki bi emakumerena<sup>1</sup>, Mari Lekandarena eta Carmen

<sup>1</sup> Informazioa lortzeko lagundu didaten pertsonak hauek izan dira: Carmen Iturriz (1929), Jon Markaida (1940), Blitor Uriarte (1957), Rocío Unagarena (1950).


<sup>2</sup> Bermeoko euskalkiaren transkripzio fonetikoaren errespetatu da, bideoz grabatu den elkarrizketan dagoen moduan.

Uriagerekarena, 1943an jaiotakoak, arrantzale familia batekoa Mari, eta bokartak gatzunetan jartzen zituen beste familia batekoa, Carmen.



Bartzelona, 1965.eko abuztuaren, ezkontzerriak. Ezkerretik eskumara: Javier Ortuazar, Mari Lekanda, Hilario Gabantxo, Carmen Uriagereka.

Mari Lekanda eta Carmen Uriagereka egun berean eta urte berean ezkondu ziren, 1965ean. Arrantzaleak ziren gizonak, biak koadrila berdinekoak, Javier Ortuazar eta Hilario Gabantxo. Orain jubilatutik daude eta euren bizitza kontatzeko modukoak da, bi arrantza eredu berezituak direlako. Hain zuzen ere, Bermeoko portuaren krisia dela eta, ondoen atera diren bi arrantza-eredu direlako. Euren antzera, beste gizon batzuk berdín egin zuten, umearoan familiaren itsasuntzian txo moduan hasi eta gero baxurako arrantzuizietan patroiak izaten ikasi. Gaur egun, Javier Ortuazar eta emaztea, Mari Lekanda, *Matsxaku* izeneko itsasuntziaren armadoreak dira, (*txiki-handi* tamainakoa, aproposa dena berdela, bokarta eta atuna harrapatzeko). 2005ean egin zuten untzia eta patroia euren alabetariko baten senarra da.



Hilario Gabantxo eta Javier Ortuazar, *Matsxaku* itsasuntzi berriaren bedeinikapen egunean<sup>3</sup> atunaren kanpaina hasi orduko. Argazkia: Miren Gabantxo/Bermeon, 2005-07-24.

Hilario Gabantxo, Carmen Uriagerekarekin ezkondua dago eta 2000. urtean jubilatua zen, *Montefrissa-9*, Calvo S.A. konpainiaren itsasuntzian zegoela patroia moduan, Seychelleseko

<sup>3</sup> Itsasuntzi berria egiten denean eta arrantzan hasi orduko, Abade katolikoa dator ur bedeinikatuarekin eta horrez gain, Gaztelugatxera joaten da itsasuntzia San Juani itsasuntziaren barruan, bere keak spirilu txarrak kanpora bidaltzeko. Hori guztia eginda gero, jan eta edan egiten da untzian, familiakoekin eta lagunekin esku-zabalak izanez (horrek itsasoaren oparotasuna ekarriko duela koan).

kanpaina egiten (Indikoa). *Baxura*-ko itsasuntzietatik altura-koetara joan zen hirurogeitamarreko hamarkadan, Afrikako kostaldera, atuna harrapatzeko asmotan. Euren bizitza kontatzea baino, bi familia horien baloreak ulertzea litzateke helburua, euren bitartez Bermeon azken urteotan izan den aldaketa nola izan den kontatzeko. Historia zati hori gureganatzeko arrantzale horien emazteen kontakizuna hartu dugu abiapuntutzat, lehenengo pertsonan bizi izan dutena jakiteko. Senarrek arrantzan eman dute denbora guztia, eta euren familiaren bizitza estiloan zuzenean eragin du honek. Beste datua, bi familia hauetan ez da semerik egon, bietan alabak baino.

## 2. Lehen belaunaldia: ama familiaren erdian

Etnografiaren ikuspuntutik arrantzale komunitateak ikertzeko orduan, emazteei buruz eta familiei buruz dagoen informazioa eskasa da. Itsasoa gogorra da gizonentzat, baina lehorrean gelditzen diren familiakoek bakarreda eta egoneza ez da inoiz Historia liburuetan agertzen. Andrazkoen ardurapean dago etxeko ardua guztia, hau da, diruaren eta ondarearen kudeaketa, eta seme-alaben heziketaren antolakuntza. Honez gain, txikien eta adinekoen zaintza euren eskuetan dago ere eta zer esanik ez, etxetik kanpoko beste lanen bat izan dezakete.

Arrantzaren ekonomian, beste alor batzuetan bezala, sexuaren arabera egiten da lanaren banaketa. Familiako pertsonen zaintza andrazkoen ardua da eta honek bai eragiten duela ekonomiaren ikuspuntutik eta emozioen ikuspuntutik (familia bateratua izatekotan). Gutxi dira gelditzen diren *neskatilak*<sup>4</sup> eta arrain fabriketan badaude oraindik soldataren truke lanean dauden andrak.

Gizonek etxetik kanpo egiten dute lan (itsaso ezezagunetan arraina bila doazenean, itsasuntzi berria egiten dabiltzanean edo konpainiaz aldatzen dutenean). Lan hauek askoz ere errekonozimendu handiago daukate andrazkoena baino. Gizartearan antolaketa aztertzeko orduan, espazioa eta denbora modu desberdinetan erabiltzen dutela bai gizonetakoek eta bai andrazkoek esan behar da. Eta hau garrantzitsua da azken berrogeitabost urteotan egon den aldaketa ekonomikoa eta kulturala ulertzeko. Tarte honetan Bermeoko arrantza-ontzidiaren birmoldaketa teknologiko ikaragarria izan da (informatzeko eta komunikatzeko teknologiena batez ere). Gainera teknika industrialak sartu dira Ozeano Atlantiarra, Indikora eta Pazifikora doazen atunontzi izoztatzailetan. Horien konpainia batzuk zerga-egoitza Bermeon baino beste herri batzuetan

<sup>4</sup> *Neskatilen* zeregina itsasuntziak lehorrean behar duen guztiaz arduratzea da. Ugazabaren familiakoek emaztea edo alaba izaten zen eta partzialik diru bikia hartzen zuten. Sasoi batean eskutiko lana zen eta gero Gizarte Segurantzako koitzaiopean egiten zen lana. Gaur egun suepremerkatuetara dei eginez lortzen dira jakien eta edariaren enkarguak itsasuntzietarako.

"Bermeokoa" ematen duela esaten da. Arrantzelearen emaztea gogorra eta bere buruarrengan konfiantza handia duena bada, senarra justu kontrakoa izaten da. Urtean denborarik gehiena etxetik kanpo igarotzen du, eta harreman estuak ditu barkuko beste marinelekin, baita lehorrean direnean ere; etxean, ordea, bigarren mailako papera du eta ia ez du "agintzen". Bere etxean arrotza dela ez esatearren. Terranova (Zulaika, 1981) liburuan arrantzelearen emozioak aztertzen ditu, kulturak tipifikatu dituen harira, beren bizitzan oinarritzko diren hiru arlotan banatuta: etxea, itsasoa eta atzerriko portua. Marinela etxetik iristen den unetik "izultzen" ari da emozionalki. Arrantzeleak mundua bi partetan banatzen du: batean itsasoa dago; bestean lehorra. Oposizio terminoetan formulatzen da: itsasoa lantokia da, lehorra "bizitza". Itsasora iristen denean, atzean uzten du "bizitza", eta hara itzuli nahi du atzera (Zulaika, 2012).

### 3. Denbora eta eremua

Bermeon, beste gizarte batzuetan bezala, emakumeek izan zuten eta dute etxe barruan familia kideen zaintza egiteko ardurua. Lan hau ez da dirutan ordaintzen. Aparteko beste lan bat izan behar dute soldata izateko. Eta gainera, arrantzele familietan, etxetik kanpoko beste lana emakumeek egiten dutena, adibidez, itsasuntzia lehorra datorrenean laguntzeko, doanez egiten dute askotan emakumeek, eman egiten dute<sup>7</sup>. Gaztetan egin dituzte horrelako lanak, itsasuntziaren logistikan, bokarta gatzunetan jartzen edo dendari lanetan, bai Mari Lekandak eta bai Carmen Uriagerekak.

Aipatzekoa da Bermeoko emakumeek etxetik kanpo lan egiteko erraztasunak jartzearen, 1930tik, "Casa del Niño" haurtzaindegia zegoela. Goizeko zortzetatik arratsaldeko seietara zegoen eta Bilbao Bizkaia Kutxa (orduko Caja de Ahorros Vizcaína)-ren babespean zegoen. Sei urte izan arte umeak bertan zainduta egoten ziren eta horrela askoz ere emakume gehiago egon ziren lanerako prest Bermeon.

*Baxurako* ontzidian, otsaila eta urria artean egiten da lanik gogorrrena. Gizona, asko jota, hamar egun egon daiteke etxera etorri gabe. *Alturako* ontzidian, familia askotan, atxa, semea, osaba edo lehengusua, lau hilabete egon daiteke etxetik kanpo, batez ere atunontzi izoztatzaileetan lan egiten badu<sup>8</sup>, Atlantiar

<sup>7</sup> UPV/EHUko, Matxalen Legarreta soziologoak bere doktore tesian dioen moduan, doanez ematen den denbora, elxeko lana eta zaintza lana aztertzeke erraminta da: "(...) doanez ematen duzun denbora dimentsio askotakoa da, plurala, da eta ez da ierarkikoa. Mitoak deusezteko eta familia barruko dinamiken konplexutasuna aztertzeke balio du. Etxeko lana eta zaintza ez dira beti mailasunaren iruke egiten eta ez dira beti emakumeen gustokoak". (Legarreta, 2013).

<sup>8</sup> Atunontzi izoztatzaileek arrantzan egiteko, Espainiako Gobernuak eta Europar Batasuneko Gobernuak negoziaketak egin behar dituzte, beste hirugarren herrietan lizentziak lortzeko. Lizentziak ordaindu egin behar dira. Atunontzirik handienek 2.300 tona gordetzeko gai dira. Izoztatze gaitasuna, 200 tona eguneko itziera heldu daiteke.

<sup>9</sup> "Bapora" hitza, Bermeon itsasuntzi kontzeptua esateko erabiltzen da gaur egun (melonimia prozesua egon da eta XX. mende hasierako bapordun itsasuntzien ordeh, "baporak" dira oraingo XXI. mendeko makinadun itsasuntzi guztiak).

jarri dute<sup>5</sup>. Arrantzelearen lan sasoiak lau-hilabeteke txandetan antolatzen dira eta honen ondorioz, ama dago familiaren erdian zutabe izaten, Charlotte Crawford ikertlariak aipatu zuten moduan.

The practice of leaving the boarding houses on a seasonal basis is reminiscent of a pattern described in Charlotte Crawford's study of women in the Basque fishing village of Bermeo, Bizkaia. In her study, Crawford suggested a nontraditional role for women in the fishing community. She maintained that the lengthy absences caused by Atlantic fishing expeditions along the coast of North Africa had distanced the men from their traditional roles within their families. According to Crawford, these factors explain why Bermeo Basque families are more "matri-focal" than those in neighboring Spain and France. As in the Bermeo case, Basque hoteliers ran the boarding houses without their men, making financial and familial decisions on their own. The result seems to have been a higher degree of autonomy and personal authority than stereotypes of women in these settings usually evoke (Echevarria, 1999).

Hirurogeitamarreko hamarkadan egin zuen Crawford-ek familia horretan sartu eta ikerketaren ondoren doktore tesia burutu zuen berak (Crawford Bamber, 1982). Familiek ama dutela erdi-erdian zutabetzat, esatean, emakume horien autonomia eta autoritate maila ohikoa baino altuagoa zela adierazten zuten. Honek, beharbada lagundu egin die hurrengo belaunaldiko emakumeei boteretsuagoak izaten eta gizarte modernoago baterantz egiten.

Hipotesi hau aztertzeke asmoz, Bermeoko bi emakumeren diskurtsoa aztertuak dugu. Hirurogeitamar urte dituzte, 1965.ean ezkondu ziren euren artean lagunak ziren bi arrantzeleekin. Javier eta Hilario, bata zein bestea, arrantza mota zehatz batean adituak izan dira, *baxuran* eta *alturan* (atunontzi izoztatzaileetan).

Mari Lekanda eta Carmen Uriagereka, bi emakume hauek, indar emozional handikoak dira eta kudeaketa ekonomikoa egiten trebeak ere bai. Ezaugarri hauek oinarritzeko izan dira euren senarreei egonkortasuna emateko eta familiaren garapen ekonomikoa egiteko. Gauza hauek garrantzitsuak izan dira hurrengo belaunaldiaren (alabeen) etorkizuna diseinatzeke. Badira honen harira, Joseba Zulaika antropologoak azpimarratzen dituenak:

Normalean, emakumeek gobernatzen dute etxea; beraien eramaten dituzte diru-kontuak eta beraien ezartzen dituzte familiaren lehentasunak. Hori dela-eta, emakume zailduak izaten dira, nortasun handikoak, oztupoak oztupo beti aurrera egiten dutenak. Adibidez, euskal gizartearen, emakume bat "kasta gogorrekoa" edo izaeraz menperatzailea dela adierazteko,

<sup>5</sup> Atunontzi izoztatzaileen konpainia ezagun batzuk hauek dira: Echebastar <http://www.echebastar.com>, Albacora <http://www.albacora.es>, Pevasa <http://www.pevasa.es>

Ozeanoan, Indikoan eta Pazifikoan. Gero, bueltan datorrenean oportetarako, lehorreko eritmorra moldatzeko arazoak izan ditzake, umeak eskolara doazelako edo lehorreko lagunak ordutegiak ez direlako egokiak kalera irteteko paseatzera. Orduan etxeko emakumeak eritmoa markatzea oso garrantzitsua da, bestela familiaren oreka galdu daitekeelako. Oreka hori beharrezkoa da etxean ordena izateko eta familiaren ekonomia babesteko. Horregatik ama da arrantzale familiaren egituraren zutabea:

Javier, baxuran, atunetan joaten zanean, baporagaz<sup>9</sup>, kanpuen, asko jota, hamar egun egoten zan, eta ez ta izan, holan, zeuon kasuen izan dan moduen, lau hilabete itsosuen eta hogei egun exien. Eta oraintsulez, lau hile itsosuen eta lau hile oportetan. (...) eta klaro, etxie ezin da bota behera, gizona oportetan dagoelako, eta arau batzuk izan bihar diez, ez reglak kanpoan itzi (Lekanda Ituarte & Gabantxo Uriagereka, 2013).

Etxeko gizona baxurako arrantzuntzietan badabil edo atunontzietan, txapazko baporetan badabil, ez da gauza berdina. Txapazkoetan, lau hilabeteko kanpainak egiten dituzte itxasoan, Afrikako kostaldean (Atlantikoan), Panamako Golkoan (Pazifikoan) edo Seychelles irletatik (Indikoan), atunontzi konpainietako behar izanen arabera.

Honek esan nahi du, urteak hamabi hilabete baditu, bi herenak, gutxienez, etxeko gizona, etxetik kanpo dagoela. Egon badaude sasoiak, lau hilabete itxasoan eta bi hilabete etxean eta berrito lauhilabete itxasoan egiten direnak. Bada egutegia antolatzeko modu gozoagoa (baina batez ere patroientzat, kapitainentzat eta makineta arduradunentzat), atunontziaren konpainian egiten diren negoziaketan arabera.

Beraz, denboraren antolaketa honek, zuzenean ukitzen du familia. Eta galdera nagusia da, aitaren (etxeko gizonaren) ausentzia luze honek, ez-egote honek, noraino eragiten duen familiarengan, bikotearengan edo/eta seme-alabengan.

Bakartasun handijle sentidu dot nik. Alper familia izan atzien. Bizitza asko egin dot ermitaño moduen, etxe barrurantz, diririk ez gastatlarren... (Uriagereka Bilbao & Gabantxo Uriagereka, 2013).

Gizona itsosuen egonez gero, Bermion txarto ikusten ete zanik andriek kalera urtetiek? Ez horrenbeste, egon dira andrak urtetien zirenak kalera, baine gu, Carmen eta ni ez (Lekanda Ituarte & Gabantxo Uriagereka, 2013).

Etxeko narratiba horiek modu intimoan bizi izan dira familia bakoitzean. Aitaren egote eta ez egote horrek, etxeko giroan barneratuta dago. Hirurogetiamarreko hamarkadatik hona denez azterturiko garaia, orduan jaioitako seme-alabak imajinatu behar dira, eta aita-amak, gaur egun 65 eta 75

urte adin bitartean direnak. Gizon arrantzale horiek jubilatuta daude. Nire aitaren moduan. Belaunaldi hori aztertu dut nik, desagertzeaz dagoen diskurtsoa baita. Egia da, gaur egun badirela atunontzi horietan lanean, patroiak, kapitainak eta makineta arduradunak, baina hori bigarren belaunaldi gazteagoa litzateke.

Amak ardura handia hartzen du, aitaren eta seme-alaben sostengu emozionala bera baita. Ama bakarrik bizi da denbora luzean eta bai etxetik kanpo lan egiten badu edo/eta etxe barruko lanez arduratzen bada, bere gainean dago familiaren ardura, bai aita arrantzan dagoen bitartean eta bai oportetarako datorrenean. Ardura ekonomikoa amarena da, diruaren kudeaketa berak egiten baitu eta etxe gehienetan, senarrak sinaturik, notario-ahalordea hartuta du emazteak.

Andra askok dakoie boterie gizonak emonda, eta ez dot pentsaten txarto egin dabunik. Guzu hau bera mandue? -esatentsat nik orain gizonari. Orain ez, eztoz gure, dinost... akostunbre ein diez gizonak. Ez lekizu ondo eritziko kendutie, ezta? -dinost orain gizonak. Gustaten jake esatie gastadoriek garala eta mandonak garaia andrak... (Lekanda Ituarte & Gabantxo Uriagereka, 2013).

Aitak irabazten duen diruari zentzua eman behar dio amak, aitari azpimarratu behar diolako berak etxetik kanpo eginiko esfortzuak merezi duela. Ama zutabe emozionala izatearekin lotuta dagoela esan genezake. Honek guzti honek familiaren egonkortasuna dauka helburutzat, egon daitezkeen denbora mozketengatik (bidaingatik eta etxetik kanpo horrenbeste denbora egoteagatik) ahalik eta kalterik txikiena egiteko familia harremanetan. Kudeaketa ekonomikoa epe laburrera eta epe luzeera estrategia izan behar du, arrantza kanpainetan aital irabaz dezakeen diruak gorabeherak dituelako. Andraren errola norberaren auto kontrolarekin lotuta dago.

Bizitzaren kontrola izatera derrigortuta egon gara. Kontrola, diruarena, bizimoduarena, gasta barik egoten... derrigor (Uriagereka Bilbao & Gabantxo Uriagereka, 2013).

Eta orduan, aitaren eta amaren exigentziak beteriko ekosistemaren par direnez, seme-alaben ikasketak eta ibilbide profesionala aitaren sakrifizio oinarrituta dagoenez, ama oso exijentea izaten da alabekin:

Andrazkuek erabaki dogu dana umeen edukazinaren gainien. Hilario konforme egon da. Ahal zana egitea zan bixon ideie (Uriagereka Bilbao & Gabantxo Uriagereka, 2013).

Bermion, andriek egin bihar zauen dana eskolaren gainien. Por ejemplo, eskolara umien erreunioetara. Egonda be, gizona ez zan joaten erreuniora. Nik argi izan dot estudiatu egin behar ebela. Alabiak hasi zauen biologia.

selektibitatea eginda gero...baina ez zauen jarraitu. Nik beti, euri inkulkesatue, guk baino gehiago izateko. Onartu behar dot umeekaz gogortsuegiak izan garela. Bai aitxe egon etxien edo ez egon, geure kontrolplan egon da daren bitzita, umeena eta etxearrena (Lekanda Ituarte & Gabantxo Uriagereka, 2013).

#### 4. Garapen ekonomiko eta ikasketak alabentzat

Itsasuntzien garapen teknologikoak, baxurako eta alturako ontzidietan, arrakasta ekonomiko ekarri zion arrantza munduari. Horrela Bermeoko arrantzale familietan, hirurogeitamarreko hamarkadatik aurrera, seme-alaben ikasketarako diru gehiago zegoenez, lanera joan beharrean, urte batzuk gehiago gelditu ziren eskolan. Bermeoko gaur egungo Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergo Institutu Publikoak, Ignacio Arocena<sup>10</sup> izena darama, inoiz egon den irakaslerik ospetsuena izan baitzen bera Bermeon.

1952. urtekoa da Institutua, orduan "laborala" baitzen. Diktadura garaian sortu zen eta gaztelaraz zen heziketa eta hamar urterik gorako mutikoentzat. 1969. urterarte neskek ez zuten sarrerarik izan bertan. Bermeoko familietako neska nerabeentzat ez zegoen beste aukerarik Gernikara joatea baino. Batxilergoa, Bermeon, orain dela berrogeitau urterik hona dago nesken eskura.

Ordurarte, 1969ra arte, Lehen Ikasketak, hamalau urterekin bukatzen ziren neskaitxoentzako, bai Eskola Publikoan eta bai Josefinetako eta Carmelitasetako Mojen Ikastegietan. Carmelitasen Ikastegian, mekanografia eta takigrafia ikasketak ematen ziren hamalau urterik hamasei urtera, baina ordaindu beharreko saioak ziren eta gutxi batzuk zuten hori egiteko aukera. Ordainduz gero ere bai, 1963tik, neskuntzako Batxilergo Ikasketak zabaldu zituzten Carmelitasetako mojek. Dena den, sasoi horretan, neskaitxoak, hamalau urterekin (edo lehenago) lanean hasten ziren, familiari laguntzearen. Gaur egun hamasei urte izan arte derrigorrezkoa da Eskolan egotea, baina orduan ez zen horrela, arazo ekonomikoak larriak baitziren.

Hezkuntzaren testuinguruaz hitz egitea garrantzizkoa da, 1969 urte horretatik aurrera, neska batzuk administrariak edo maistrak izateko prestatu zirelako. Ordurarte mutilen aukera zen zerbait ikaste gerorako, ez neskena, beti ere bekaren baten bitartez edo familiaren laguntza ekonomikoaren bitartez<sup>11</sup>.

<sup>10</sup> Historialaria, idazlea eta irakaslea. Gipuzkoan jaio zen, Donsotian 1931.eko urtarrilaren 7an. 2003an hil zen. Fausto Arocena historialari, ikerlari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Artxiobaren Zuzendariaren semea zen. Valladolideko Unibertsitatean ikasi zuen eta Azpeitian eta Lebrujan (Sevillan) lan egin ondoren, Bermeora joan zuen historia irakastean, hogeitabost urtean egon baitzen irakasle bezala Institutuan, 1994. urterarte. Institutu Bermeoko liburategiari eman zizkion etxena gordeta zituen 3.407 liburuak. Konsultaren data 17/03/2013 hemen <http://www.euskomedia.org/aunamendi/4389>.

<sup>11</sup> Dirurik gabeko familientzat zegoen beste aukera, mutikoak komentura bidaltzea zen. Arantzazuko Prantziskotarren komentuan ikasi zuten batzuk eta abadea izateko momentua heltzen zenean irten egiten ziren, baina ikasketekin.

Hezkuntzari lotuta beste urte garrantzitsua 1981. urtea izan zen. Eusko Jaurlaritzan Garaikoetxea lehendakaria zegoen eta Bermeoko Institutu publikoan, ikasgai batzuk euskeraz emateko baimena lortu zen. Eredu bikoitza zen egitasmoa, ikasle elebidunentzat prestatuta, gaztelaraz eta euskeraz. Batxilergoaren zati garrantzitsua eta COU euskeraz ikasteko aukera egon zen lehenengo aldiz Bermeon eta hortik sortu zen Bermeon lehenengo taldea Unibertsitatean ikasketak euskeraz -ama hizkuntzan-, egiteko gaitasunarekin<sup>12</sup>. Gainera EGA (Euskerazko Gaitasun Agiria) ateratzeko prest egon ziren ikasle horiek eta horren bitartez erraztasunez lortu ahal izan zuten Euskal Administrazio Publikoan funtzionari lanpostuak hartzea, edo arrantzatik urrun dauden beste lanpostu onetan sartzea. Gauza hauek azpimarratzekoak dira, Bermeoko gizartea nola aldatu den ulertzeko. Hirurogeitamarreko hamarkadararte, familien errenta ekonomikoa baxua zen Bermeon -arrantzaleak, arotzak, fabriketako langileak, sareginak, neskaitak ziren gehienak-. Aldikako lanak ziren eta beti zeuden arrantza kanpainen gorabeheren menpe. Larogeiko hamarkadatik aurrera, heziketaren eraginez, seme-alaben ganorazko lanpostuek familien egonkortasun ekonomikoa sendotu zuten. Alaben heziketa euren amengandik bereziki bultzatuta zetorren. Mari Lekanda eta Carmen Uriagerekaren elkarriketatik, alaben heziketan sortu zen arazoa deskribatu da. Askatasuna emateko gogoia zegoen. Larogeiko hamarkadan Bermeon dirua zegoen gazteei denbora librean gastatzeko aukera emateko, baina droga (heroina) nagusitu zen kalean eta orduan beldur handia sortu zen, gauzak kontroletik kanpo zeudelako. Emakume hauek, oso bakarrik sentitu ziren arazo honi aurre egiteko, gizonetara kontatu ezinik zuten beldurra. Alabeei emandako heziketa oso gogorra izan zela azpimarratu zuten biek:

Gu gogorak izan gara eta gizonak ere gogorak izan diez. Bizikeran, kalia, etxien. Sarritan gogorregiak izan gara. Gizonak euren munduan bizi izan diez. Nosotras teniamos que cumplir con todo lo que venia encima. Eurentzako gogorra izan da itsosue eta guretzako ere bai etxie erutie geuk bakarrik. Baie ez dauie demonstraten lagundu deusagunik. Badakil lan asko egin dozuna -dinos gizonak. Baie normalmente ez da konportaten eta nire arazo handijie da, ez dauela konpreniten (Lekanda Ituarte & Gabantxo Uriagereka, 2013).

#### 5. Konklusioak

Eztabaida hor dago, bi emakume hauen erabakiak, euren alabei etxetik kanpo irteteko bultzatzean, autonomia pertsonala eta ekonomikoa garatzean, botere osoa euren eskuetan izateko mezuaz, aldaketa sozialerako giltzak izan diren edo ez. Euren erabakiekin, hurrengo belaunaldirako eremu berriak zabaldu ote dituzten edo ez.

<sup>12</sup> Bermeon 1966. urtean jaioetako neska-mutilen taldea da. Ordukoa naiz ni eta hiru lekutik bildu ginen Institutuan: Eskola Publikotik, Carmelitas mojen ikastegitik, eta Eleizalde ikastolatik. Modu arautuan, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko zortzi kurtsoak bukatu eta bertan batu ginen denak. Euskerazko Batxilergo Egitasmoa bultzatu zuen bat Felix Bilbao irakasle bermeotarra izan zen, larogeiko hamarkadako orduko Institutuan lanean baitzegoen.

Egituren aldetik, amek alabentzat proiektaturiko eremu hauek, tradizioaren lerrotik sortu dira. Amak, eurak, tradizioan oinarritu dute euren diskurtsoa eta gizon batekin ezkondu beharra izan zuten euren familiarengandik at garapen pertsonala egiteko 1965.urtean.

Emakumeok garapen pertsonala eta ekonomikoa izateak, askorentzat ez du lehentasunik gaurko gizartearen. Baina gutxi-gutxika aldaketak ematen ari dira Bermeon, emakume askok etxetik kanpo irteteko gogoia dutelako eta beste jendearekin harremanak izateko prest daudelako, eremu pribatutik eremu publikora joateko helburuarekin. Gizonen sozializatorako eginiko txokoak daude Bermeon aspalditik eta 1994.urtean, modu paraleloan, Erroxape elkarte sortu zen, udal diru-laguntza baten babespean eta emakumeen aisialdiarekin eta osasunarekin zer ikusia dituzten gauzak egiteko<sup>13</sup>.

Aztertu diren arrantzele familien bi ereduak, Mari Lekandarenak eta Carmen Uriagerekenak, tradiziozko lekuetan kokatu dituzte eurak, eremu domestikoan (etxe barruan), gizonaren alboan eta gizonaren zutabe izaten. Gizonak etxean ez egoetatik, andre hartu behar izan dute haien eremuaren zatia. Arlo publikoan parte hartu behar izan dute (adibidez senarraren irabazien kudeaketa ekonomikoa egiteko banketxean edo ahalorde notariala erabiliz ondarearen bat baino gehiago erosteko). Erabaki horien ondorioz, esan daiteke askatasun eremu berria zabaldu dutela arrantzaleen emazteek. Asmatutiko eremu horretan, ziurrenik hurrengo belaunaldia imajinatu dutela (alabak), hezkuntza arautua eta espezializatua izango zutelakoan, bai profesionala edo bai unibertsitate mailakoa, eta ardura handiko lanpostuetan kokatuko zirela. Hau guzti hau imajinatze, familietako gizonen ikuspegiarekin bat datozela esan genezake, familian bertan aurkitu dutelako itsasoa aurrera egiteko behar zuten oreka emozionala:

Itsasoa "kartzela" da marinelaren gogoan, eta itsasoa ematen duen denboran ito egin behar ditu emozioak, kanpora irten ez daitezela. Lehorra, aldiz, emozio beharrak asebetetzeko tokia da. Itsasoa ezer ez da segurua; lehorra segurtasuna da. Itsasoa zoriaren baitan dago dena; lehorrean, aldiz, segurtasuna da printzipala (Zulaika, 2012).

Arrantzele moduan gizonak izan duten lan-garapenerako, emazteak hor egon dira, euren denbora ematen sostengu moduan (eta hor egon dira alabak ere bai, bigarren maila batean). Akordio horretan ez da hitzik egon, ez da merkataritza-eragiketarik izan, ez da trukean zuzenean ezer eman, baina lotura oso sendoa egin da.

<sup>13</sup> Eroxapek jardunaldiak, bidaiek eta osasun tailerrak antolatzen ditu, beti ere Bermeoko emakumeei laguntzeko. [Konsulta egun honetan egin zen 2015-03-15, hemen <http://www.direktorioa.net/ver.php?ie=1967>].

Marcel Mauss antropologoak zioen moduan, hartzen duenari zerbait bueltan ematera behartzen dio opariak. Denbora, beraz ez da lineala, biribila baino. Senarrak emaztearengandik jasotzen du denbora (umea txikia denean amarengandik jasotzen duen moduan, gero zahartzaroan bueltan jasotzeko). Mauss jarraituz, aintzinako gizarteetan, trukean ematen den denboraren formak eta funtzioak badu bere izatea eta arauak bete behar dira. Arauak ez direnean betetzen, arazoa sortzen da, hutsa datorrelako. Azterturiko bi familia hauetan arauak ez daude idatzita baina betetzen dira, gizonak bueltan emateko badutelako.

Marcel Mauss antropologoak dio, gizakion artean zerbait emate horrek, oparitzeak, funtsezko zentzua duena. Hiru gauza behar dira: eman, jaso eta bueltan eman (Mauss, 2009). Eta horrela adieraziko nuke nik Bermeoko gizarte arrantzalean gertatu dena: Marik eta Carmenek euren familietan eman eta Javierrek eta Hilariok jasota (eta gizonen berba egiteko beharrik gabe) bueltan oparitu dute andrazkoek nahi zutena, hau da, eremu publikoan erabakitzeko boterea izatea.

## 6. Iturri bibliografikoak

- CRAWFORD BAMBER, C. J. (1982): *La madre vasca y su contexto psicológico: Un estudio de la personalidad*. Doktorego tesia, argitaratu gabe. Universidad de Barcelona.
- DOUGLASS, W. A. (1999): *Basque cultural studies* Basque Studies Program/322. Reno (USA): University of Nevada.
- ECHEVARRIA, J. (1999): "The Basque *Hotelera*: Implications for broader study". In W. A. Douglass, C. Urza, L. White & J. Zulaika (Eds.), *Basque cultural studies* (pp. 244). Reno (USA): University of Nevada.
- GREENWOOD, D. J., DEL VALLE, T., & PUJADAS, J. J. (1996): "In Memoriam Julio Caro Baroja". *VII Congreso De Antropología Social. Homenaje en recuerdo de Julio Caro Baroja (1914-1995)*, 16. Donostia.
- LEGARRETA, M. (2013): *El tiempo donado como instrumento para analizar el trabajo doméstico y los cuidados*. Doktorego tesia, argitaratu gabe. Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU.
- MAUSS, M. (2009): *Ensayo sobre el don. Forma y función del intercambio en las sociedades arcaicas*. [Essai sur le don. Forme et raison de l'échange dans les sociétés

archaïques]. Buenos Aires: Katz Editores.

ZULAIKA, J. (1981): *Terranova: the ethos and luck of deep-sea fishermen*. Philadelphia (USA): Institute for the Study of Human Issues.


ZULAIKA, J. (2012): Tradizioak. (*Euskal Kultura Saila, 10*) [Traditions] (M. Murua, O Gilella Itzultz.). (Mari Jose Olaziregi ed.). Donostia: Etxepare Euskal Institutua <<http://www.etxepareinstitutua.net/argitalpenak/tradizioak.pdf>>

#### Ikus-entzunezko iturriak

*Elkarrizketa, argitaratu gabekoa*. Lekanda Ituarte, M. and Gabantxo Uriagereka, M. (2013, Martxoan). [Bideoz] Bermeo.

*Elkarrizketa, argitaratu gabekoa*. Uriagereka Bilbao, C. and Gabantxo Uriagereka, M. (2013, Martxoan). [Bideoz] Bermeo.

## Bermeotarrak XX. mendean



## Anton Ormazaren sasoia 1922-2010



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia